



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/02/26

Bizkaiko Foru Aldundia hiru alternatiba ari da aztertzen, Bilbon dituan egoitzak berrantolatzeko

Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak Foru Aldundiak Bilbon dituan higiezin berrantolakuntza posiblerako dagozan aukeren gaineko informazioa emon dau gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordearen aurrean. Bengoetxea berak eskatuta etorri da Batzordera, Pricewaterhousecoopers kontsultoretza enpresak Foru Aldundiaren egoitzen erabileraren diagnostikoa eta hobekuntzarako proposamenak jasoten dituan txostenaren eukia Batzarretako taldeei jakinarazoteko.

Herri Administrazio arduradunak, gaur egun Bilbon dagozan foru egoitzak 33 higiezinetan sakabanatuta egotea bideratzeko hiru alternatiba aurkeztu ditu. Diputatu andreak esan dauenez, une honetako egoitza kopurua “ez da oso arrazoizkoa”. “Oraindino ez dogu hartu hiru aukeren gaineko ezelango erabagirik”, adierazo dau. Hiru aukerak, foru egoitza batzuk barriztetea, daborduko existiduten dan eraikinen bat errentan hartzea edo erostea, edo neurrira egindako soluzinoak izango dituan eraikin barria eregitea dira. Hiru aukerek abantailak eta desabantailak ditue, Diputatu andreak adierazo dauenez, eta, azpimarratu dauenez, Bilbon dagozan 33 bulegoetatik 19 baino ezin dira zentralizau, beharra hobeto egiteko eta herritarrei zerbitzu hobea eskini ahal izateko.

Ibone Bengoetxeak, Aldundiak Bilbon dituan bulegoen egungo egoerearen gaineko datu kuantitatibo batzuk emon ditu: 3.000 pertsona inguruk egiten dabe behar bertan; alogadutako zazpi higiezin dagoz, urtean 2,3 milioi euro ordainduz; Aldundiak jabetzan daukazan eraikinak 146 milioi eurotan dagoz balorauta; eta ekitaldi bakotxean kontratetan diran garbiketa, segurtasun eta bestelako hornidura zerbitzuek 14,7 milioi euroko kostua daukie.

Batzarretako taldeek Aldundiak higiezin gainean egin dauen diagnostikoaren inguruko lehenengo balorazioa egin ahal izan dabe. Talde Mistoko ordezkariak, 2002an, Aldundiaren bulegoak gaur egungo Iberdrola Dorrean bateratzeko egon zan proiektua gogoratuaz dau. Talde Popularreko bozeroaleak, bere aldetik, txostena interesgarria dala esan dau, eta zerbitzuak zentralizetako egitasmoa arrazoizkoa dala. Podemos Bizkaia taldeko ordezkariak, holango operazino bati ekiteko orduan beste hainbat alderdi kontuan hartzeko eskatu dau, energiaren eraginkortasuna edo garraio publikoa gertu egotea, adibidez. Euskal Sozialistak taldetik, “erespide ekonomiko hutsaz aparte, gizarte arloko erespideak be kontuan izatea” eskatu da. EH Bilduk esan dauenez, ez da normala gaur arte ez jasotea taldeak 2016an daborduko eskatu eban txostena, eta ondorioak kontrastetako bigarren txosten bat kontuan izango ete dan galdetu dau. Euzko Abertzaleak taldearen aldetik, “zerbitzu publikoen kudeaketan eta prestazinoan hobekuntzarako aukerak sortu leikezala” adierazo da, “eta Aldundiari jagokona entzute aktibo jarreea izatea dala, agertzen diranean aukera horreek baliatu ahal izateko”.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andrea, foru erakundearen jardueren gardentasunaren inguruko Bizkaia Gardena Atariko atalean iragarri ez diran Aldundiaren hainbat planen gainean EH Bilduk egin deutsan ahozko erantzun-eskeari



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

erantzuteko be etorri da Batzar Nagusietako Iraskunde Batzordeko saio berera. Gai horri jagokonez, Ibone Bengoetxeak onartu egin dau webgunean “daborduko konpondu diran arazo txiki batzuk gertatu dirala”, eta etorkizunean arazo horreek hobetzeko martxan jarri behar diran prozedurak martxan jarteko jarrera erakutsi dau.

JAIOTZEN ALDEKO POLITIKAK

Aurretik, agerraldia Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak egin dau. Diputatu andreak, Talde Popularrak jaiotzak bultzatzeko hartuko diran neurrien gainean eta Talde Mistoak, gai beraren inguruan, Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta EUDELeK Euskal Udalerrien Alkarteak sinatu daben Familien eta Umeen aldeko Ituna azaltzeko egin dituen galderei erantzun deutse.

Gai horreei jagokenez, Gizarte Ekintzako arduradunak zehaztu dau “erlazino zuzenik ez dagon arren, politika publikoek jaiotzak sustatzen lagundu daikiela”, eta Familien eta Umeen aldeko Ituna “erakundeen arteko lankidetzaren erakusgarri eta familien garrantzia autortzen dauen konpromiso publikoa” dala esan dau. Sánchez Robles, “halan gura dabenei, euren familia eredu bat edo beste bada be, seme-alabak eukitea galarazoten deutseen oztopoak gaintitzen laguntzearen” alde agertu da, eta horren inguruan, “ekimen horreen erdian beti egon behar dirala pertsonak” azpimarratu dau.

Batzarretako taldeen aldetik, agerraldiaren eskatzaile biek eredu demografikoaren aldaketea eta hurrengo hamarkadetara begiratuta horrek erakusten dituan arazoz betetako ikuspegiak azpimarratu ditue, biztanleria gero eta zaharragoa izango dalako. Podemos Bizkaiaren aldetik adierazo danez, jaiotzak bultzatzeko edozein politika ezin izango da aurrera eroan testuinguru sozio-ekonomikoa baztertuta, eta EH Bilduko bozeroaleak azpimarratu dau “hori guztia nahiko berde dagola, eta gaitza dala balorazino bat egitea, neurri zehatzak falta diralako”. Horrez gain, demografiaren eraldaketako testuinguru horretan migrazinoagaz erlazioautako politikak be sartu beharko dirala esan dau.

Aldundiko gobernua eusten daben talde bien aldetik, Euskal Sozialistak taldeak, Eusko Jaurlaritzagaz, gainerako foru aldundiakaz eta udalakaz sinatu dan Hitzarmena, Familiari Laguntzeko IV. Planean gauzatuko dala, eta gai horretan “konpontzetik prebenidutera pasau” beharko garala azpimarratu dau. Euzko Abertzaleak taldeak, bere aldetik, gai horretan bakotxaren erabagi pertsonalak errespetetea ezinbestekoa dala azpimarratu dau. Helburua “ez da eredu bat inponidutea, danak konpartidutea baino”.

NOTA DE PRENSA

26/02/18

La Diputación Foral de Bizkaia sopesa tres alternativas para una reorganización de sus sedes en Bilbao

La Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha dado cuenta esta mañana ante la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

las Juntas Generales de Bizkaia de las diversas alternativas que el ente foral maneja de cara a una posible reorganización de sus inmuebles en Bilbao. Bengoetxea ha comparecido a petición propia para trasladar a los grupos junteros el contenido de un informe sobre diagnóstico de uso y propuestas de mejora de las sedes de la Diputación Foral, elaborado por la empresa consultora Pricewaterhousecoopers.

La responsable de Administración Pública ha presentado tres alternativas a la actual dispersión de las sedes forales en Bilbao en 33 inmuebles distintos, una cifra que ha calificado como “poco razonable”. Los tres escenarios “sobre los que por el momento no nos hemos decantado por ninguno en concreto” son la rehabilitación de algunas de las sedes forales, el arrendamiento o compra de un edificio ya existente, o la construcción de uno nuevo con soluciones a medida. Las tres opciones cuentan con ventajas e inconvenientes, según la Diputada Foral, que ha señalado que solo 19 de las 33 oficinas disponibles en Bilbao son susceptibles de ser centralizadas para un mejor desempeño del trabajo y un mejor servicio a la ciudadanía.

Ibone Bengoetxea a ofrecido algunos datos cuantitativos sobre la actual situación de las oficinas de la Diputación en Bilbao: dan trabajo a alrededor de 3.000 personas; incluyen siete inmuebles alquilados que suponen un desembolso de 2,3 millones al año; los edificios en propiedad están valorados en 146 millones de euros; y subcontratan servicios de limpieza, seguridad y otros suministros por valor de 14,7 millones en cada ejercicio.

Los grupos junteros han tenido ocasión de hacer una primera valoración de este diagnóstico inmobiliario de la Diputación. El representante del Grupo Mixto ha recordado el proyecto del año 2002 de unificar oficinas forales en la actual Torre Iberdrola, y el del Grupo Popular ha calificado de interesante el trabajo, y de razonable el objetivo de centralización de los servicios. La representante de Podemos Bizkaia ha demandado la consideración de aspectos como la eficiencia energética o la proximidad del transporte público a la hora de abordar una operación de este tipo, mientras que desde Socialistas Vascos se ha reclamado “que se tenga en cuenta un criterio social, más que puramente económico”. EH Bildu se ha quejado de no disponer hasta hoy de un informe que ya había solicitado en octubre de 2016, y ha preguntado si se contará con un segundo trabajo para contrastar sus conclusiones. Por parte de Nacionalistas Vascos se ha destacado el hecho de que “pueden surgir oportunidades de mejora en la gestión y la prestación de servicios públicos, y lo que corresponde es una actitud de escucha activa por parte de la Diputación de cara a aprovechar esas oportunidades cuando se presenten”.

La Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales ha comparecido en la misma sesión de la Comisión Institucional de las Juntas Generales para responder a una pregunta de EH Bildu en torno a diversos planes forales que no habían aparecido publicados en el Portal web Bizkaia Gardena, dedicado a la transparencia de las actividades del ente foral. En este sentido, Ibone Bengoetxea ha admitido “pequeñas disfunciones que ya han sido subsanadas” en la web, y ha mostrado su predisposición a adoptar cualquier procedimiento de mejora para evitar estos problemas en el futuro.

POLÍTICAS EN FAVOR DE LA NATALIDAD

Previamente, el turno en la comparecencia ha correspondido a la Diputada Foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, que ha respondido a sendas cuestiones planteadas por el Grupo Popular sobre medidas de fomento de la natalidad, y del Grupo Mixto, que ha preguntado en la misma línea a partir de la firma del Pacto por la Familia y la Infancia suscrito por el Gobierno Vasco, las tres Diputaciones Forales y la Asociación de Municipios Vascos Eudel.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

A este respecto, la responsable de Acción Social ha precisado que “aunque no hay una relación directa, las políticas públicas pueden contribuir a fomentar la natalidad”, y ha reiterado que el Pacto por la Familia y la Infancia “es una muestra de colaboración inter-institucional, y un compromiso público que reconoce la importancia de las familias”. Sánchez Robles ha abogado por “remover los obstáculos que impiden tener descendencia a quienes la desean, independientemente de su modelo de familia”, y a este respecto ha afirmado que “en el centro de estas iniciativas deben estar siempre las personas”.

Por parte de los grupos junteros, los dos solicitantes de la comparecencia han insistido en el cambio de modelo demográfico y las problemáticas perspectivas que abre de cara a las próximas décadas, con una población cada vez más envejecida. Desde Podemos Bizkaia se ha apuntado que cualquier política de fomento de la natalidad no puede hacerse al margen del contexto socio-económico, mientras que la portavoz de EH Bildu ha apuntado que “todo esto está bastante verde, y es difícil hacer una valoración a falta de medidas concretas”, al tiempo que ha llamado a incluir las políticas migratorias en este contexto de transformación demográfica.

Los dos grupos que apoyan al gobierno de la Diputación, Socialistas Vascos ha incidido en que el Pacto con Gobierno Vasco, resto de diputaciones forales y ayuntamientos se va a materializar en el IV Plan de Apoyo a la Familia, que en esta materia será necesario “pasar de reparar a prevenir”. Mientras que Nacionalistas Vascos ha incidido por su parte en que se trata de una cuestión en la que es imprescindible el respeto a las decisiones individuales de cada cual, y en la que “no se trata de imponer un modelo, sino de compartirlos todos”.